

# Moodle Tresnen Gida Irakasleentzat

Lortu nahi duzuna (teknologia)	Lortu nahi duzuna (pedagogia)	Informazioaren transferentzia Tresna hau baliagarria da ikasleei informazioa helarazteko?	Ikaskuntzaren ebaluazioa Tresna hau baliagarria da ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko?	Komunikazioa eta interakzioa Tresna hau erabilgarria da ikasle eta irakasleen arteko komunikazio eta interakzioa sustatzeko?	Edukia elkarlanean sortu Erabilgarria da zuk eta ikasleek kolaboratu eta elkarrekin edukia sortzeko?	Bloom-en taxonomiaren zein pentsamendu gaitasun ahalbidetzen du? • Gogoratu • Ulertu • Aplikatu • Analizatu • Ebaluatu • Sortu
<b>Baliabidea gehitu</b> Fitxategi bat igo (Word / odt/ ppt/ odp, pdf)	Erraza, postaz dokumentu bat atxikitzea bezalakoxea. Baina dokumentua solte geratzen da.	Bai. Kontuan izan irakasleak baino ezin dituela artxiboak igo ikastarora.	Izan liteke. Erabili atazak proposatzeko. Jaso ikasleen ekoizpenak foro edo zereginen bitartez.	Ez. Ez du aukerarik ematen ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa eta interakzioa sustatzeko.	Izan liteke. Erabili atazak proposatzeko. Jaso ikasleen ekoizpenak foro edo zereginen bitartez.	Bat ere ez. Hau ez da ikaskuntza jarduera bat, informazioa helarazteko da.
<b>Baliabidea gehitu</b> Web orri bat estekatu	Erraza, web helbidea topatu (url edo http://), kopiatu, eta itsatsi.	Oso modu erraza ikasleei informazioa helarazteko. Datu-baseko artikulak ere esteka daitezke zuzenean.	Zuzenean ez. Aukera bat da ikasleen kanpoko e-portfolio edo blogetara esteka ipintzea.	Izan liteke. Kanpoko tresnak esteka daitezke: Google Calendar, Groups, blogak, wikiak...	Izan liteke. Esteka ipin daitezke kanpoko tresnetera: Google Calendar, Groups, blogak edo wikiak.	6/6 Ipintzen duzun estekaren baitan, edozein gaitasun.
<b>Berrien foroa</b> Ikastaroaren azken berriak baldizteko erabili.	Erraza. Ikastaroarekin datarren foroa da. Zuk ez duzu ezer egin behar.	Bai. Ikastaroaren azken berriak plazara daitezke, ikasleei adorea eman lanean jarraitzeko, estekak ipini, oharrak idatzi...	Ez. Berrien foroa mugatua da. Ikasleek ezin dituzte gai berriak proposatu.	Gai berriak proposa ditzakezu eta ikasleek erantzun. Ikastaroaren abiadura zehazteko oso egokia.	Mugatua, ikasleek ezin dituztelako gai berriak proposatu. Aholkua: beste foro mota bat erabili.	2/6 Gogoratu eta ulertu. Ez da zehazki irakaskuntza jarduera bat.
<b>Eztabaida foroa</b> Ikaskuntza jarduera ezberdinetarako erabili. *	Erraza. Foroak lehenetsita ditu ezarpenak. Izena eta deskribapena ipintzearekin nahikoa da.	Baliabideak partekatze (estekak, artxiboak...). Mezu kopuru handia? Informazioa galtzeko arriskua.	Foroak erabilera anitzak dituenek, ebaluatzeko erabil dezakezu. Diseinatu ebaluazio hezigarria duen jarduera bat.	Bai. Ikasleak zurekin eta haien artean komunikatzeko. Interakzioa gela osoan edo taldeka eman daitezke.	Bai. Ikasleek kolaboratu, gaiak aztertu, eta eztabaida ditzakete.	5/6 Uleratu, aplikatu, analizatu, ebaluatu, sortu
<b>Wiki</b> Ikaskuntza jarduera ezberdinetarako erabili.	Zaila. Banakako edo taldeko ezarpenak erabaki behar dira. Ezagutza minimo bat behar da.	Bai. Informazioa zabaltzeko erabil dezakezu. Eman editatzeko baimena irakasleei bakarrik edo edonori.	Wikiak erabilera anitzak dituenek, ebaluatzeko erabil dezakezu. Diseinatu ebaluazio hezigarria duen jarduera bat.	Ez da egokia eztabaidarako. Bai <i>brainstorming</i> egin, planifikatu eta kolaborazioan aritzeko.	Bai. Ikasleek kolaboratu, gaiak aztertu, eta eztabaida ditzakete.	5/6 Uleratu, aplikatu, analizatu, ebaluatu, sortu
<b>Glosategia</b> Baliabideak bildu edo informazioa azaltzen duten jardueretarako.	Lehenetsitako ezarpenak ondo daude. Saia zaituz egilearen izena bistan ager dadin.	Erabili glosategia hitzak definitzeko edo informazioa emateko. Oraindik hobeto, utzi ikasleek egin dezaten hori.	Glosategiak erabilera anitzak ditu eta erabil dezakezu, baina jarduera egokia diseinatu beharko duzu.	Ez da egokia eztabaidarako. Ikasleek beste ekarpenak irakurri & iruzkindu edo balioetsi ditzakete.	Jatorrizko egileak baino ezin dituzke sarrerak editatu. Ikasleek baliabideak, etab. bil ditzakete.	5/6 Uleratu, aplikatu, analizatu, ebaluatu, sortu
<b>Galdetegia</b> Ikaskuntza (hezigarria edo batutzaila) ebaluatzeko.	Zaila eta denbora behar du. Galdetegia konfiguratu, gero galderak sortu... Kategoriak ezartzea komenigarria da.	Ebaluatzeko da bereziki erabilgarria, ez inforazioa emateko. Aholkua: autoebaluaziorako erabili.	Galdetegiak denbora muga eta segurtasun izan ditzake. Galdera mota ezberdinak sor ditzakezu.	Ez. Aholkua: erabili foroak honen ordez.	Ez. Aholkua: foroak edo wikiak erabili honen ordez.	6/6 Seiak neur ditzake, baldin eta sormena erabiltzen baduzu galdetegia diseinatzean.
<b>Ikasgaia</b> Informazio mailakatua aurkeztu edo ikasitakoa egiaztatzeko.	Zail samarra izan daitezke. Beharrezkoa da aurretik ondo planifikatzea ikasgaia. Esfortzuak merezi du.	Oso aproposa informazioa era mailakatuan eta gidatuan emateko, ibilbideekin.	Bai, emaitzak ipin ditzakezu. Ikasgaia galderak ibilbideekin, role play... egiteko erabil dezakezu.	Ez. Hau bakarkako jarduera bat da, ez taldekoa.	Ez. Hau bakarkako jarduera bat da, ez taldekoa.	6/6 Seiak neur ditzake, baldin eta sormena erabiltzen baduzu ebaluazioa diseinatzean.
<b>Zeregina</b> Zereginen feedback-a bildu, ebaluatu eta emateko erabili.	Erraza. 4 zeregin mota ezberdinen artean hautatu. Online & offline izan daitezke. Ebaluatzeko aukera ematen du.	Ez. Zereginak ez dira aproposak informazioa emateko.	Bai. Epeak & gehieneko emaitzak zehatz ditzakezu. Zereginak bildu eta eman feedback-a.	Ez. Irakasle eta ikasleen arteko interakzio oso mugatua ahalbidetzen du.	Ez. Ez ditu onartzen taldeko zereginak. Foroa edo wikia erabili.	6/6 Zeharkara. Zereginaren diseinuaren baitan.
<b>Datu-basea</b> Sortua dagoen materiala ikasleek bildu, partekatu eta bilatzeko erabili	Zaila abian ipintzeko. Garbi izan zer nahi duzun hasi aurretik. Ezagutza minimo bat behar da.	Irakasleak erabil dezake informazioa emateko, baina jarduera egokia diseinatu beharko du.	Bai, datu-baseak erabilera anitzak ditu, baina jarduera egokia diseinatu beharko duzu.	Ez da egokia eztabaidarako. Ikasleek beste ekarpenak irakurri & iruzkindu edo balioetsi ditzakete.	Ikasleek informazioa eta artxiboak partekatzen dituzte (bilaketa aukerarekin).	5/6 Uleratu, aplikatu, analizatu, ebaluatu, sortu

Oso aproposa

Moldatuta, baliagarria izan daitezke.

Ez da baliabiderik egokiena.

**Nola erabili gida hau**

- Moodle erabiltzaile berria zara? Erabili gida hau zure helburuak lortzen lagunduko dizuten tresnarik egokiena hautatzeko.
- Badakizu zein tresna erabili? Jarraitu dagokion ilara bere indarguneak / ahuleziak ezagutzeko.
- Badakizu zer lortu nahi duzun? Zutabea hautatu eta ikusi zein den horretarako tresnarik aproposena.

**\*Izan zaituz sortzaile eztabaidarako foroak erabiltzean:** ez duzu zertan erabili beti eztabaida sakonak egiteko. Beste erabilera batzuk: gelako debatea, talde eztabaidak, asteko informea, sareko ikerketa bidatzeko, role play egin eta feedback-a emateko, baliabideak topatu eta analizatzeko, laguntza emateko...

**Laguntza gehiago behar?**

- Moodle komunitatea: [www.moodle.org](http://www.moodle.org)
- Jaitsi: **'Using Moodle'** liburua (doan!) [http://docs.moodle.org/20/en/Using\\_Moodle\\_book](http://docs.moodle.org/20/en/Using_Moodle_book)
- @lasic-en 2 minutuko Moodle bideoak <http://tomazlasic.net/moodle/moodle-tutorials-2-minute-moodles/>
- @moodleman blog: [www.moodleman.com](http://www.moodleman.com)
- Eskutu laguntza zure erakundeko e-learning talde edo IKT arduraduneri.



Joyce Seitzinger (@catspyjamasnz)  
[www.cats-pyjamas.net](http://www.cats-pyjamas.net) / [www.eit.ac.nz](http://www.eit.ac.nz)

Itzulpena eta moldaketa: Maite Goñi (@euskojakintza)  
[www.maitego.com](http://www.maitego.com) / [www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

